



**GALINDOKO HUA-KO CULICIDAE- ETA CHIRONOMIDAE-POPULAZIOAK ZUZENEAN KONTROLATZEKO
NEURRIAK APLIKATZEKO ZERBITZUA.**

2. DOKUMENTUA

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. XEDEA

Kontratu honen xedea Galindoko HUAn eltxo-populazioak (Culicidae eta Chironomidae familiak) zuzenean kontrolatzeko neurriak aplikatzeko zerbitzua da, honako honetan datzana: landaredia aldian behin fumigatzea, eta larbiziden aldian behingo aplikazioak hutsik dauden edo ur geldoa duten dekantagailu primarioetan eta kanaletan, bai eta dekantazio sekundarioko klarifikagailuetan ere.

2. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

2.1. KONTRATUA EXEKUTATZEKO EGIN BEHARREKO LANEN DEFINIZIOA

Kontratuaren adjudikaziodunak lan hauek egin behar ditu:

a. Berdeguneen aldian behingo fumigazioak

Intsektu helduen babeslekuetan tratamendu intsektizida aplikatzea, ugalketa-areen inguruan. Honako eremu hauek bereizten dira:

- «A» eremua, klarifikazio-putzuen perimetroa. Gutxi beherako azalera: 4.657 m²
- «B» eremua, zaintzailearen etxolaren ingurua (instalaziorako sarbidea) eta bulego-eraikinaren area perimetrala. Gutxi beherako azalera: 5.804 m²
- «C» eremua, zuhaitz hostotsuak «usainen tratamendurako» eremuaren aurrean. Gutxi beherako azalera: 346 m²
- «D» eremua, landaredi hostotsua araztutako uraren irteeraren ondoan. Gutxi beherako azalera: 144 m²

Tratamendua arestian aipatutako eremuetako intsektu-babeslekuetara bideratuko da. Tratamendua kontaktu-intsektizida bat aplikatzean etzango da; zehazki, zuzenean aplikatuko da intsektizida hori eremu horietan.

Komeni denaren arabera, teknika hauek erabiliko dira:

- Lainoztatze zuzendua
- Termolainoztapena



Eremuen ezaugarriak, irisgarritasuna eta landaredi mota kontuan hartuta, lehentasuna emango zaio «lainoztatze zuzendua» deritzon teknikaren medioz lokalizatutako tratamenduari.

Erabili beharreko produktua lainoztatze-teknikaren edo termolainoztapen-teknikaren bidez intsektu hegalariai kontrolatzeko baimendutako piretroide bat izango da. Produktu hori Osasun Ministerioaren «Ez- nekazaritzako plagiziden edo bioziden erregistroan» inskribatuta egongo da.

12 orduko segurtasun-epea duten produktuak izango dira, eta, horretarako, tratatuko diren eremuak behar bezala seinaleztatu beharko dira; halaber, zentroaren ohiko funtzionamendua aldatuko ez duen tratamendu-ordu batzuk hautatu beharko dira tratamendurako. Tratamenduak 15:30etik aurrera aplikatu beharko dira HUAko langile kopurua gutxienekoa denean, BBUPEko Laneko Arriskuen Prebentzioko Sailarekin koordinatuta nolanahi ere. Halaber, fumigatu beharreko eremuak balizatuta egongo dira, eta fumigazioari buruzko informazio-kartelak jarriko dira eraginpeko eremuetan. Kartel horiek kanpaina osoan egongo dira jarrita.

Intsektu horiek aktiboen daudeneko aldia, ugalketa-jarduera eta zikloen iraupena (arrautzaren erabateko garapena → larba-faseak → helduak) kontuan hartuta, tratamendurako aldia maiztazetik azarora bitartekoa izango da. Aldi horretan, tratamenduak «astean behin edo hamabostean behin» egingo lirake, apiriletik azarora, eguraldiaren arabera.

30 fumigazio egingo dira urtean gehienez ere.

b. Larbiziden aldian behingo aplikazioak dekantazio sekundarioko klarifikagailuetan

Larbizida biologikoa –*Bacillus thuringiensis* (israelensis barietatea, H-14 [Bti] serotipoa) bakterioan oinarritua– aldian behin aplikatuko da, formatu pikortatuan (Vectomax), dekantazio sekundarioaren klarifikagailu guztietan (18 unitate).

Larbizida sei astean behin aplikatuko da klarifikagailu bakoitzean. Gehienez 7 aplikazio aurreikusten dira klarifikagailu bakoitzean urtebeteko epean; hots, urtean 126 aplikazio aurreikusten dira 18 klarifikagailutarako.

Aplikazioan, klarifikagailu bakoitzeko 3 kg produktu usatuko dira gehienez; horrek esan nahi du urtean 378 kg baliatuko direla (7 aplikazio urteko 18 klarifikagailuetako bakoitzean).

Aplikazio bakoitzean eta klarifikagailu bakoitzean, 3 larbizida-kilogramoak polietilenoazko sareko 12 poltsatan (26 cm x 18 cm) banatu beharko dira, bakoitza 250 gramokoa, eta hainbat posiziotan jarri beharko dira. Uniformeki banatu beharko dira klarifikagailuen zubi mugikorren metalezko egituretan (8 poltsa) eta barandan (4 poltsa), kate baten bidez. Distantziakide mantendu behar dira, larbizidaren banaketa homogeneoa bermatzeko klarifikagailuaren zabaleran, eta katearen luzera doitu behar dute, poltsaren beheko aldea ur-gainazalaren azpitik 30 cm-ra gera dadin.

Barandan jarritako poltsak hormatik bereizita kendu behar dira, horman finkatutako hodiak aprobetxatuz; bestela esanda, ez dira hodian eta hormaren artean sartu behar, hormaren kontrako marruskaduragatik ez daitezen hondatu.

Normalean, klarifikagailu guztietan batera aplikatuko da produktua, baina baliteke zenbait kasutan klarifikagailuren bat martxan ez egotea eta aplikazioa beste une batean gauzatu behar izatea.



Aplikazio bakoitzean aldatu egin beharko dira larbizida duten polietilenoazko sare-poltsak. Poltsa horiek behar bezala lastatuta egon beharko dute, ez dezaten ur-gainazalean flotatu, urperatuta geratuko direla ziurtatze aldera. Kontratistak hornituko du larbizida aplikatzeko behar den material guztiaz.

Azken aplikaziotik bost aste igaro ondoren, kendu egingo dira larbizida daukaten polietilenoazko sare-poltsak.

Poltsak eta sortutako beste edozein hondakin erretiratu eta kudeatzeko ataza kontratistaren erantzukizuna izango da.

c. Aldian behin larbizida aplikatzea ur gordina ekaitzen dekantaziora banatzeko kanalean eta lehen mailako dekantagailu hutsen kontzentragailuen eremuan

Larbizida biologiko bat (Vectomax) aplikatuko da ur gordina ekaitzen dekantaziora banatzeko kanalean eta dekantagailu primario hutsetako kontzentragailuen eremuan, non euri-uraren metaketak (putzuak) sortzeko arriskua dagoen.

Larbizida sei astean behin aplikatuko da. Gehienez 7 aplikazio aurreikusten dira urtebeteko epean, eta produktu larbizidaren 10 kg inguru erabiliko dira. Aplikazio bakoitzean jaurtiketa bidez erein beharko da larbizida. Larbizida 7 aplikazioetarako 18 kg-ko zaku batean emango da.

d. Hustutako biologikoaren putzuetan eta klarifikagailuetan larbizidak aplikatzea

Larbizida biologikoa (Vectomax) aplikatzeari ekingo zaio aurreikuspenen arabera 5 egunetik gorako iraupena izango duten mantentze-lanak egiteko hustutako putzu biologikoetan eta horiei lotutako klarifikagailuetan (halakoetan euri-uren putzuak sortzeko arriskua dago). Gehienez 4 aplikazio aurreikusten dira urtebeteko epean, eta produktu larbizidaren 32 kg inguru erabiliko dira. Aplikazio bakoitzean jaurtiketa bidez erein beharko da larbizida.

Besterik adierazi ezean, kontratuak dirauen bitartean egoera horretan egongo dira gutxienez putzu bat eta hiru klarifikagailu. Kontratuaren arduradunak laguntzaren arduradunari jakinaraziko dizkio kontratuaren hasieran hustutako putzuak eta klarifikagailuak, bai eta horiek mantentze-lanetarako hustean edo betetzean jazotako aldaketak ere.

2.2. LAGUNTZA TEKNIKOAK

Kontratuak dirauen bitartean, enpresa adjudikatzailerak laguntza-zerbitzu tekniko bat jarriko du BBUPen eskura urteko lanegun guztietan, bulego-ordutegian.

2.3. LANAK ETA BITARTEKOAK ANTOLATZEA

Kontratuaren arduradunak eta laguntzaren arduradunak adostu egingo dituzte lantaldeak egin beharreko atazak. Atazak Galindoko (Sestao) HUAko instalazioetan gauzatuko dira.



Adjudikaziodunaren kontura izango dira BBUPen eremuan bere jarduera garatzeko langileak lekuz aldatzeagatik sortzen diren mota guztietako gastuak.

Lantaldea osatzen duten teknikarien oporrak eta bajak zerbitzu-exekuziorako esleitutako arduradunen ziurtapen akademikoa eta profesionala betetzen duten beste teknikari batzuek estali beharko dituzte. Orobat, lanpostua ordeztu egin dela jakinaraziko zaio kontratuaren arduradunari.

3. NEURKETA ETA ORDAINKETA

Hilabete bakoitzeko 5a baino lehen, adjudikatzailerak aurreko hilean egindako lanen zerrenda baloratua entregatu beharko du, eta hileko ziurtagiria egiteko oinarritzat hartuko da hori. Fakturak kointziditu egin beharko du zerrenda horrekin.

4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Kontratistak, egin beharreko lanen gauzatzean, hauetan guztietan jasotako betekizunak bete beharko ditu: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko Legean, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arauketa-esparruaren aldaketan (54/2003 Legea), 171/2004 Errege Dekretuan eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan aplika daitezkeen arau guztietan jasotakoak.

5. INGURUMENA

BBUPen Ingurumen Arauak aplikatu eta nahitaez bete behar dira; BBUPen webgunearen bidez eskuragarri daude arauok: <http://proveedores.consorciod eaguas.com/Web/Inicio/index.aspx>.

Sestao, 2025eko otsaila

Kontratuaren arduraduna,

Izpta.: Koldo Lekue Marcos.